Presentan recurso de alzada contra las expropiaciones del TAV en la zona de Olite

SUSTRAI ERAKUNTZA :: 09/01/2018

Desde la Fundación Sustrai Erakuntza entendemos que es el Gobierno de Navarra quién debiera velar por los derechos de los y las navarras

De la Serna eta Ayerdiren bilera dela eta, Sustrai Erakuntzak GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkezten du Erriberri aldeko AHT-ren desjabetzeen kontra

Gaur ezagutzera eman digute **Nafarroako Abiadura Handiko Trena eta "Euskal Y" aren arteko lotura**.

Gai honen inguruan publikoki aitortutako azken bilera, eta omen bakarra, uztailaren 14an gertatu zen. De la Serna ministroa (PP), Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako lehendakariordea (PNV) eta Arantza Tapia Lakuako Azpiegituretarako kontseilaria (PNV) Madrilen bildu ziren horretaz aritzeko. Beste behin ere, PP eta Geroa Bai elkarren eskutik dabiltza Nafarroan tren eredu zehatz bat ezartzeko orduan.

Iragarritakoa, labur esanda, ezin argiagoa da: **Tafallako geltokiaren antzera, Sakanako Altsasukoa desagerraraziko dute**, gero eta gutxiago dauden artean batzuk esaterako.

Bitxia da oso, Nafarroa eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoa sinatu eta aste gutxira, orain ezagutzea Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren lotura "Euskal Y"-arekin.

Duela hainbat hilabete abisatu egin genuen **akordio handiak** falta zirela. Alde batetik, oraindik zehaztu gabe zegoen nola lotuko zituzten Nafarroako AHT-eneko zatia eta EAEkoa. Eta bestetik, ez zen ezagutzen **nola aldatuko zuten egungo Iruñeko tren ibilbidea**, **Etxabakoitzen** geltoki berri bat eginez inguruko garapen urbanistikoarekin batera

Nafarroako zein Espainiako Gobernuek **diru publikoa xahutzen duten bitartean**, Sustrai Erakuntzak jarraitzen du lanean. Honetan, **gora jotzeko errekurtso** bat aurkeztu dugu hainbat udalerrietan (Faltzes, Martzilla, Erriberri, Peralta eta Alesbes**)** tramitatzen ari diren **nahitaezko desjabetzeen aurka** AHT/PHT aren lanen ondorioz. Helegitean ondoko arrazoiak eman ditugu:

Ez dago jasota **"plataformaren oinarrizko proiektua"**-ren behin betiko onarpena, ez Espainiako ezta Nafarroako Buletinean ere.

Egintza administratibo bat argitaratzeak badu helburu argi bat: balizko eragindakoek horren berri izatea. Horrek bermatzen du desjabetze prozeduraren ondorioz ondasunak eta eskubideak ukituak dituzten kaltetu guztien defentsa eskubidea. Eta hori are beharrezkoagoa da ezagutzen ez diren jabeentzat, bertan ez direnentzat,…

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluak ondokoa behartzen du desjabetzearen espedientean: "*necesariamente, la oportuna retención de crédito, con cargo al ejercicio en*

que se prevea la conclusión del expediente expropiatorio y la realización efectiva del pago, por el importe a que ascendería el justiprecio calculado en virtud de las reglas previstas para su determinación en esta Ley".
Irekitako desjabetze espedientean, ez dago inongo diru-partidarik balio justua bermatzeko.
Hori agertzen ez denez, aipatutako berme konstituzionala urratu egiten da, eta beraz, Administrazioak ezin du erosi desjabetu nahi diren ondasunak.

Sustrai Erakuntza Fundazioaren ustez, **Nafarroako Gobernuak nafarron eskubideak zaindu beharko lituzke.** Nahiz eta Estatuko Azpiegiturak, Garraio eta Etxebizitzarako Idazkaritza kudeatzailea izan, lanak Nafarroan egiten ari dira, eta beraz, Nafarroako Gobernuak zorrotz aritu beharko luke prozedurak legalitatea errespeta dezan. Non dago beraz Nafarroako Gobernuaren jarduna?

Auzi honetan gero eta agerikoagoa da Nafarroako Gobernuaren zeregina.

Haren estrategiak, proiektu honen inguruan, norabide argia du: **Iruñeko trenbide buklearen aldaketa, eta horrekin batera, Etxabakoitzeko geltoki berria eta horren inguruko garapen urbanistikoa**.
Horixe baino ez da buruhauste honen azken pieza, "inondik inora doan trena"-ren amaiera, atseginez kopiatu ziguten berbera.

Helburu hau lortze aldera, uste baino lasterrago, ikusiko dugu nola heltzen dioten komunikabideetan kanpaina pedagogiko on bati Etxabakoitzeko PSISen aldaketari buruz: aipatuko dute trenbideak Iruñean eragiten duen "hesi efektua", horrek sortarazten dituen eragozpenak eta arriskuak Berriozarren, hiriaren urbanismoaren antolamendu "naturala", agian Etxabakoitzerako eraikigarritasuna apalduko dute hiria "atsegin egiteko"… Dena dela, **saiatuko dira bereizten, alde batetik, trenbide buklearen aldaketa eta, bestetik, Abiadura Handiko Trenaren geltokia**.

Horrela, bi kontu horiek berezita agertuko balira, elkarren artean zerikusirik ez balute bezala, auzi honetan diren eragile ezberdinak askoz erosoagoak sentituko eta mugituko dira

Beraz, gaurko besarkadarekin, PPko De la Serna ministroa eta PNVeko Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako lehendakariordearena artean, ongi etorria ematen diogu Mr. Marshalli eta jarraituko dute Nafarroako Prestazio Handiko Trenaren antzezpenarekin. Bai**, betiko Abiadura Handiko Tren zaharkitua**.

Hitzekin jolasean entretenitzen dira, errealitateari iskin egiteko.

UPN/PSNek planteatutako proiektu bera da. Ez dute deus aldatu, ezta txikienik ere. Ez da deus aldatu ez gardentasunean**, ez errentagarritasun ekonomikoan, sozialean edo ingurumenezkoan**… Gauza gehiegi ez dira aldatu.

Ez dugu etsiko. Hemen gaude eta jarraituko dugu. Sustrai Erakuntza, ateak eta leihoak ireki.

Nafarroan, 2018ko ilbeltzak 9

Sustrai Erakuntza Fundazioa

Web orrialdeak: http://www.fundacionsustrai.org/ - http://www.sustraierakuntza.org/

_____

[Castellano]

Ante la reunión del Sr.Ayerdi y Sr. De La Serna, Sustrai Erakuntza presenta RECURSO DE ALZADA contra las expropiaciones del TAV en la zona de Olite

Hoy nos han dado a conocer la **conexión del TAV navarro con la "Y-vasca"**.

La última y casi única reunión hecha pública para tratar esta cuestión data del pasado 14 de julio. El Ministro De la Serna (PP) se reunió en Madrid con el vicepresidente Desarrollo Económico navarro, Manu Ayerdi (PNV), y la consejera de Infraestructuras de Lakua, Arantza Tapia (PNV), para tratar esta cuestión. Otra vez más, parece ser que el PP y Geroa Bai están de acuerdo en el modelo de ferrocarril que quieren desarrollar en Navarra.

El resumen de lo anunciado es que si en la zona media de Navarra ya han dejado claro que **hacen desaparecer la estación de Tafalla**, en **Sakana** ya han dejado claro que hacen **desaparecer la estación de Altsasu**, por mencionar algunas de las pocas que quedan.

Es curiosa también la casualidad de que después de apenas unas pocas semanas de conocer el anuncio del acuerdo del Convenio económico entre Navarra y el Estado, conozcamos el anuncio de la conexión del TAV "navarro" con la "Y-vasca".

Ya publicábamos hace meses que todavía faltaban por anunciar **grandes acuerdos**.

Que quedaba todavía sin concretar la conexión del TAV/TAP con la Comunidad Autónoma del País Vasco. Y sobre todo, que falta por conocer la **modificación del bucle ferroviario de Pamplona/Iruñea** y la construcción de otra estación junto con su desarrollo urbanístico en **Etxabakoitz**.

Mientras unos en el Gobierno de Navarra y en el Gobierno de España siguen adelante con sus planes de **derroche de dinero público**, la Fundación Sustrai Erakuntza seguimos adelante con el trabajo y hemos **presentado un Recurso de Alzada** frente a la **expropiación forzosa** que se está tramitando con motivo de las obras del TAV/TAP en los términos municipales de **Falces, Marcilla, Olite, Peralta y Villafranca**.

Las razones justificadas en el recurso son varias, entre ellas:

Que **no consta publicada** en ninguno de los Boletines Oficiales, ni del Estado ni de Navarra, la aprobación definitiva del "**Proyecto básico de plataforma**".

La finalidad de la publicación de un acto administrativo es asegurar que los/as posibles afectados/as van a tener conocimiento del mismo. Esto garantiza materialmente el derecho de defensa de todos/as los/as propietarios/as cuyos bienes y derechos serían directamente afectados por el procedimiento expropiatorio. Y es necesaria su publicación para los

propietarios no conocidos, ausentes...

El artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa, entre otras cuestiones, prevé que en el expediente de expropiación debe constar "*necesariamente, la oportuna retención de crédito, con cargo al ejercicio en que se prevea la conclusión del expediente expropiatorio y la realización efectiva del pago, por el importe a que ascendería el justiprecio calculado en virtud de las reglas previstas para su determinación en esta Ley*".

En el anuncio del expediente expropiatorio **no consta ninguna partida presupuestaria o retención de crédito que garantice el pago del justiprecio**.

Al no constar, la referida garantía constitucional se ve vulnerada y, por lo tanto, la Administración no puede adquirir la propiedad de los bienes objeto de expropiación.

Desde la Fundación Sustrai Erakuntza entendemos que **es el Gobierno de Navarra quién debiera velar por los derechos de los y las navarras**.

Aunque las gestiones las esté realizando la Secretaría de Estado de Infraestructuras, Transporte y Vivienda, el territorio donde se están llevando a cabo es Navarra, y debieran estar velando por que los procedimientos que se desarrollen se hagan con escrupuloso respeto a la legalidad. ¿Dónde está, en este caso, la actuación del Gobierno de Navarra?

Es precisamente la actuación del Gobierno de Navarra la que va quedando cada vez más clara. Su estrategia y actitud con toda la gestión de este proyecto, y en concreto de cara a este final de legislatura, parece ser **conseguir la modificación del bucle ferroviario de Pamplona/Iruña**, junto con el **desarrollo urbanístico** y la **construcción de la nueva estación en Etxabakoitz**.
Es la "última" pieza del rompecabezas, el final del "tren de ninguna parte a ninguna parte" que tan gustosamente nos copiaron.

Para esto, antes de lo que pensemos, se empezará en los medios una buena **campaña pedagógica** sobre la modificación del PSIS de Etxabakoitz: se hablará del "efecto frontera o efecto barrera" que genera el ferrocarril en la ciudad, se hablará de las molestias que genera, de los riesgos en Berriozar, del ordenamiento "natural" del urbanismo de la ciudad, quizás también se reducirá la edificabilidad en la zona prevista en Etxabakoitz por eso de impulsar la "amabilización" de la ciudad… En cualquier caso, **se intentará desligar la modificación del bucle ferroviario-estación del propio proyecto del TAV**.

Que las dos cuestiones no parezcan la misma por eso de facilitar la incómoda situación a todas las partes implicadas.

Con este nuevo acto de hoy entre el Ministro De la Serna (PP) y el vicepresidente Desarrollo Económico navarro, Manu Ayerdi (PNV), damos la bienvenida a Mr. Marshall y continuamos con la teatralización del impulso del Corredor Navarro de Altas Prestaciones (TAV). **El viejo y caduco Tren de Alta Velocidad rebautizado**.

Son cosas de los juegos del lenguaje, no llamar a las cosas por su nombre.

No han cambiado ni una coma del viejo proyecto de alta velocidad planteado por UPN/PSN.

No ha cambiado nada en la falta de transparencia, no ha cambiado en la **inexistencia de estudios de rentabilidad económica, social o medioambiental**, no ha cambiado la falta de análisis de otras opciones más eficaces… Demasiadas cosas no han cambiado.

No nos vamos, hemos venido para quedarnos, aquí estamos y aquí seguiremos. Sustrai Erakuntza, luz y taquígrafos.

En Navarra, a 9 de Enero del 2018

Fundación Sustrai Erakuntza

Páginas Web: http://www.fundacionsustrai.org/ y http://www.sustraierakuntza.org/

_____

https://eh.lahaine.org/presentan-recurso-de-alzadacontra-las